

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**7137** *Hutsen zuzenketa, honako errege lege-dekretu honena: 18/2012 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 11koa, finantza-sektoreko higiezin-aktiboak saneatu eta saltzeari buruzkoa.*

Hutsegiteak aurkitu ditugu Finantza-sektoreko higiezin-aktiboak saneatu eta saltzeari buruzko maiatzaren 11ko 18/2012 Errege Lege Dekretuan (Estatuko Aldizkari Ofizialaren 2012ko maiatzaren 12ko alean argitaratu zen, 114 zenbakikoan) eta dagozkion zuzenketak egiten ditugu honen bidez:

5. orrialdean, 8. artikulua 1. paragrafoan, honako hau dioen lekuan: «maiatzaren 11ko 18/2012 Errege Lege Dekretuko 3. artikuluan», beste hau esan behar du: «errege lege dekretu honetako 3. artikuluan».

5. orrialdean, 8. artikulua 1. paragrafoan, hau dioen lekuan: «aipatu Legeko 83. eta 94. artikuluetan», beste hau esan behar du: «Sozietateen gaineko Zergaren Legearen 83. eta 94. artikuluetan.»

5. orrialdean, 8. artikulua 2. paragrafoan, hau dioen lekuan: «Balore Merkatuari buruzko uztailaren 27ko 24/1988 Legeko 108. artikuluko», beste hau esan behar du: «Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legeko 108. artikuluko».

5. orrialdean, 8. artikulua 2. paragrafoan, hau dioen lekuan: «aktibo higiezin kudeaketarako errege lege-dekretu honetako 3. artikuluan aurreikusitako sozietateen eraketaren ondorioz», beste hau esan behar du: «aktibo higiezin kudeaketarako errege lege-dekretu honetako 3. artikuluan aurreikusitako sozietatei aktiboen ekarpena egitearen ondorioz».

7. orrialdean, azken xedapenetako bigarrenaren sarrera gisako testuan, honako hau dioen lekuan: «hirugarren xedapen gehigarri bat eransten zaio...», beste hau esan behar du: «laugarren xedapen gehigarri bat eransten zaio...».

7. orrialdean, gehitzen den xedapen gehigarriaren izenburuan, honako hau dioen lekuan: «Hirugarren xedapen gehigarria.», beste hau esan behar du: «Laugarren xedapen gehigarria.»

8. orrialdean, azken xedapenetako laugarrenean, Bat paragrafoan, honako hau dioen lekuan: «Finantza-sektorearen aktibo higiezin saneamenduari eta salmentari buruzko xx/2012 Errege Lege Dekretuko 2. artikuluan», beste hau esan behar du: «Finantza-sektorearen aktibo higiezin saneamenduari eta salmentari buruzko maiatzaren 11ko 18/2012 Errege Lege Dekretuko 2. artikuluan».

11. orrialdean, eranskinean, hau dioen lekuan: «Hipoteka bermearekin», beste hau esan behar du: «Berme errealekin».